



Iurretako Iturburu ortuak, asteartean. 2009an ipini zituzten. OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

Landa, hiritik hurre

Natura hirigunera gerturatu dute hiriko ortuek. Bizkaiko herri askotan sortu dituzte azken urteetan, eta beste makina batean ipintzeko asmoa dute: Basaurin, kasu baterako. Osasuna da baratze horiek sustatzeko arrazoietako bat, baina «balio hezitzailea» ere aitortu diete. 2-3



Julen Nafarrate eta Ines Bermejo:
«Kontatu ezin diren istorioak
kontatzea izan da zailena»

BERBETAN, 5

Bilbo Basket taldearen
25. denboraldia **ospatzeko**
modukoa izan da zaleentzat

SASKIBALOIA, 10

Hiritarrak nekazari

Azken urteetan, hiriko ortu asko sortu dituzte Bizkaian. Adituen arabera, halako baratzeek hiriaren eta landa eremuaren arteko distantzia laburtzeko balio dute, baita naturaren eta izaki bizidunen zaintza sustatzeko ere.

Testua:

AMAIA IGARTUA ARISTONDO

Jada hirietan bizi dira biztanle gehienak, eta hiritarrak elikatzeko erabiltzen dira baliabide gehienak ere. Paradoxikoki, ordea, ez dute izaten etengabeko hornidura hori bermatzeko behar den prozesuaren berri: hiritarrak ez du zertan jakin eskuan kabitzen den lur zati batean milioika izaki bizidun daudela, edo letxuga bat landatu eta hilabete eta erdira jasoko dela uzta; izan ere, elikagaia supermerkatuko apaletara ailegatuko da berdin-berdin. «Gaur egun, uste dugu zapaltzen dugun zerbait baino ez dela lurra, eta ez gara konturatzen zer-nolako bizitza aberatsa daukan», nabarmendu du Igone Palacios EHUKo Garapen Iraunkor eta Ingurumen Hezkuntzako Unesco Katedrako kideak. Izan ere, hirien hedapenak ingurutik egotzi ditu nekazaritza eremuak, eta prozesu horrek lurrari buruzko kontzientzia galtzea ere eragin du. Atzera egiteko bulkada badago, dena den: azken urteetan, Bizkaian nabarmen ugartu dira hiriko ortuak.

Palaciosen arabera, egun oso aldenduta daude nekazaritza esparrua eta hiriak, eta horiek hurbiltzeko modua izan daitezke hiriko ortuak, besteak beste. «Agian, denok ezin gara nekazari izan, edo ez dugu nahi, baina mundu hori ezagutzea beharrezkoa da». Inportantea da, batetik, alde ekologikotik, hormigoiz jositako hiriaren biodibertsitateari ortu batek egin diezaiokeen ekarpena; eta, bestetik, alde sozialari ere erreparatuta, «balio hezitzaile oso garrantzitsua» duen egitasmo bat delako. «Hiriko ortuek hiritarren kontzientzia eraldatzeko ere diseinatuak izan behar dute».

Funtsezkoa da, hortaz, ortua egoki kudeatzea, eta kontzientzia eta filosofia jakin batekin lotzea, Palaciosen ustez. Esaterako, nitratoak eta sulfatoak erabiltzen badira, substantzia horiek uretara joango dira agian azkenean,

eta eutrofizazio arazo bat sortu; mesedea baino gehiago, kaltea egingo luke horrek. Eta, orobat, lurraren ustiaketak orekatua izan behar du: beti ezin da hartu, tarte itzuli beharra ere badago. Hala, formakuntzari oinarritzko deritzo EHUKo ikerlariak. Eta helduentzat ere aberasgarria den arren, haurrengan ipini du arreta, bereziki: txikitatik naturarekin lotura edukiz gero, errazagoa baita ulertzea norberaren bizitzarako garrantzitsua dela eta zaindu beharra dagoela, Palaciosen esanetan. Soroetan, gainera, mikroekosistemak sor daitezke, bestelako elementu batzuk txer-

tatuz: intsektuen hotel bat, urmael txiki bat, izpiliku gune bat tximeletak bertaratu daitezke...

Esaterako, ornogabeek duten garrantziaz jabetzeko balio dezake ortu batek. Desagertzen ari dira, eta, askori nazka eragiten dieten arren, ezinbestekoak dira ongizaterako, Palaciosen azpimarratu duenez. «Batzuek polinizazioa egiten dute; beste batzuek, lurraren emankortasuna handitu... Baina ez ditugu ezagutzen, ezagutzen ez duguna ez dugu maitatzen, eta maitatzen ez duguna ez dugu zaintzen». Soka bat da, edozelan ere. «Lurrari balioa ematen badiogu, beste espazio



Lurretako Iturburu ortuak. OSKAR MATXIN EDESA / FOKU



↑ Aurtengo prestakuntza saio bat Lemoako ortuan.

RAMON ZEARRETA

asko zaintzeko ardura ere hartuko dugu».

Lurra, «sobran»

Formakuntza da Ramon Zearreta nekazaritza ingeniari tekniko eta Lur 2000 enpresako gerentearen jardunaren ardatza ere. Makina bat urte darama hiriko ortuak sustatzen eta kudeatzen: Lurretan ipini zuen aurrenekoa, Iturburu ortuak, 2009an; eta herri mordo bat batu da harrezkero, hala nola Berango, Berriz, Lemoa, Derio, Gernika-Lumo, Markina-Xemein eta Getxo. Abadiñok, Zornotzak eta Urdulizek ere beren ortua izango dute datozen hilabeteetan. Dagoeneko martxan dauden soroetan itxaron zerrenda dago, eta horrek jada argi lagatzen du badagoela halako tokien eskaria. Ortu ez-profesionalak dira, ez daude salmentara bideratuta, baina etxeko kontsumorako lain ematen dute. Doakoa da haiek lantzea, udal zerbitzua baita.

Plazak lehiaketa bidez esleitzen dira, eta ondoren erabiltzaileei formakuntza bat eskaintzen die Zearretak berak: ortu ekologiko baten nondik norakoak esplikatzeko, baita lurraren ingurukoak ere; landaketei buruzko aholkuak ematen dizkie, sasiak garbitzeko makina erabiltzen irakasten die, eta ahal dela euri ura jaso eta erabil dezatela gomendatzen die. Ekoizleek urtean bitan jasotzen dute formakuntza, eta Zearreta sarri joaten da kudeatzen dituen ortuetara, aholkuak eskaintzeko.

Osasuna da ortuon helburueta bat. «Ortua *agrocrosfit*-a da: orain boladan dagoen *crossfit*-a bezalakoa, baina aire zabalean, eta, gainera, etxerako ortuariak lortuta», bota du ingeniariak, barrez. Hobeto jatea ere bada xedea, eta jendeari jakinaraztea ez dagoela zertan barazkiak apartetik ekarri, bertoko porruak, tomateak eta abar kontsumi daitezkeela. Hiriko ortuak prozedura ekologikoekin lantzen dira, eta alde horri ere balioa eman dio Zearretak. Ugariagoak dira onurak, haren irudiko: terapia psikologikoa da, baita eremu inklusibo bat ere.



→ lurretako Iturburu ortuetako berotegiko kimu batzuk. RAMON ZEARRETA

lehen ortuak edo ganaduen bazkalekuak izandako lekuak dira».

Lurra oparo dago leku batzuetan, eta eskas beste batzuetan. Barakaldoko Beurko ikastetxe-ko lehengo ortua desagertu egin zen obra batzuen ondorioz, eta atezainaren etxea zenaren ortua baliatu behar izan dute Baratze Proiekturako. «Ikastetxe guztiek horrelako egitasmoak izan behar-ko lituzkete», uste du Itxaso Bolado Beurkoko irakasle eta proiektuaren sustatzaileak. «Umeek kontaktua izan behar dute naturarekin, are gehiago Barakaldo bezalako zona industrial batean. Asko ez dira mendira joan, ez dira inoiz baratze batean egon, eta ez daude zikintzera ohituta». Egoera horrek hauspotuta, Bolado eta lankide bat bi orduko ortu tailer-erak ematen hasi ziren irailean, astearte arratsaldeetan. Hamar bat ikaslek eman zuten izena: hasi zirenean «gutxi» zekiten, Boladoren arabera, baina gogotsu ibili dira aitzurra hartuta lur-rean murgiltzen, hesiak margotzen, edo horiek non jarri erabakitzen.



Ez da sekulako baliabiderik behar, gainera: ez lurzoru baten jabe izatea —ortu batzuetarako eremuak alokairuan eskuratu dituzte—, ez eraikuntza garestiak taxutzea, ezta lur bereziki aberatsa erdiestea ere. Urdulizen, adibidez, futbol zelai zahar-rean kokatuko dute baratzea. «Eremu abandonatuak leheneratzeko ere balio dute. Sasitzetan ere landa daiteke, sasiak kendu ostean». Hala, lurra «sobran» dagoe-la azpimarratu du Zearretak. «Are, gero eta gehiago dago, leku degradatu asko abandonatzen ari direlako:

↑ Barakaldoko Beurko eskolako ortua, asteleheneko irudi batean. Datorren ikasturtean hasiko dira landatzen. ITXASO BOLADO

Lursaila atontzen ibili dira tailerretan, eta soroa prest laga dute landatzen hasteko. Hurrengo ikasturtean helduko diote lan horri. Horrez gain, atsedean orduetan ortua zabaltzeko asmoa dute, herriko Trueba institutuak egiten duen bezala, eta arratsaldeetan ikastaroekin segitzekoa: aromatikoak ipini, neguan zer erein esplikat, elikadura osasuntsuarekin lotu eta sukaldaritza ere landu... «Nahiz eta ikasleak lan egitera ez etorri, ortua lasaitzeko gunea izan daiteke, irakurtzeko, bertan egoteko».



«Uste dugu zapaltzen dugun zerbait baino ez dela lurra, eta ez gara konturatzen zer-nolako bizitza aberatsa daukan»

IGONE PALACIOS

EHUko Garapen iraunkor eta Ingurumen Hezkuntzako Unesco Katedra

«Ortua 'agrocrossfit'-a da: 'crossfit'-a bezalakoa, baina aire zabalean, eta, gainera, etxerako ortuariak lortuta»

RAMON ZEARRETA

Nekazaritza ingeniari teknikoa eta Lur 2000 enpresako gerentea

«Nahiz eta ikasleak lan egitera ez etorri, ortua lasaitzeko gunea izan daiteke, irakurtzeko, bertan egoteko»

ITXASO BOLADO

Barakaldoko Beurko eskolako irakaslea

«Basauri askoz kalteberagoa da ezbehar naturalei dagokienez. Uholde arriskua ere badaukagu»

IRENE GARCIA

Basauriko Ingurumen zinegotzia

Auzoko familiei ere zabalduko diete parte hartzeko aukera. «Azkenean, institutu publikoa gara, eta uste dugu publikoa guztiona dela. Bost familia daude interesatuta. Guztiok batera egoteko gune bat izango litzateke, Barakaldon ez dago-eta ortuetarako gune berderik».

Klima larrialdirako

Basaurik ere ortu ludiko bat izango du etorkizunean, udalak sustatua. Biztanleen aspaldiko eskaera da, Irene Garcia Ingurumen zinegotziak aitortu duenez. Iruaretxeta parkean ezarriko dute, gaur egun gutxi erabiltzen den bazter batean: lauorgeri baratze aurreikusi dituzte, bakoitza 35-40 metro koadrokoko, aldagelak, komunak eta lan tresnak gordetzeko eraikin bat, eta ingurumen gela bat, formakuntzarako. 2026an eraikitzen hasteko asmoa dute, eta urte bukaeran edo 2027ko hasieran esleituko dituzte plazak, seguruenik.

Garciaren ustez, klima aldaketaren eraginak leuntzeko ere baliagarria izango da ortua. Bestelako natur guneekin batera, baratzeok egokitze ahalmen handiagoa emango baitiote herriari, haren aburuz. Izan ere, Basauri herri «txiki» bat da, zazpi kilometro koadroko azalera baino ez du 40.000 biztanlerentzat, eta hormigoiak estaltzen du eremu ia dena. «Askoz kalteberagoak gara bero boladei eta ezbehar naturalei dagokienez. Herria bi ibaik zeharkatzen dute; beraz, uholde arriskua ere badaukagu». Palacios EHUko ikerlariaren esanetan ere, hiriko ortuek nolabaiteko babesa eman dezakete klima larrialdian. «Gero eta lehorten gehiago izango ditugu, eta hirietan gero eta bero gehiago. Zementuak itzelezko beroa hartzen du; eremu berdeetan, berriz, aldea sekulakoa da». ●

Paperezko ideiak



BIXI BIZI
Jone Larrinaga
Dañobeitia

Zorionak. Maiatza pasatu da, eta bizirik jarraitzen dugu. Ehunka palestinarrek ez dute zorte bera izan. Urtero, sasoi honetan, *pause*-ri emateko gogoz egoten naiz. Bizitza ikasturteka ikusten dugunon beste tara bat. Biziraupen botoia sakatuta banenbil

bezala da. Horregatik, ekainean, opor usainarekin batera, tabernako serbiletan batean udarako aholkuak idazten aritu nintzen atzo. Gaur, jengibre infusioa eta nire paperezko ideiak guztiontzat.

Bizkaian, tenperatura 1,2 gradu igo da batez beste azken bi hamarkadetan. Errudun bila hasteko beharrianik gabe, eman 50+ eguzkitako krema, zure osasunagatik, eta utzi hainbeste plastiko kontsumitzeari, guztion itsasoen osasunagatik. Beroak arropa gutxiago eramatea dakar, eta horrek sistemaren eraginak areagotzen ditu gure azalean. Lasai, zure gorputza perfektua da; ez duzu inoren begien kanonean ahokatu beharrik. Ez utzi egitea gustatzen zaizun hori egiteari besteek epaituko dutelakoan. Gorputza horretarako daukagu eta: maite dugun hori egitea ahalbidetzeko.

Euskadin sinatutako kon-

tratuen %20 udako kontratu laburrak dira. Zuri arratsaldeko terrazako zerbeza asko gustatzen zaizu, baina zurekin terrazan pilatu diren beste 30 pertsoneri ere bai, eta langilea ez da horren erantzule. Pazientziatzat itxaron eta ez inor tratatu zuk tratatua izan nahiko ez zenukeen eran. A! Eta gogoratu zure lagun guztiak ez daudela zure egoera ekonomiko berean. Kontsumotik aldentzen den aisialdia ere aisialdia da. Mendi buelta eta erreka bainua kaleko gau zinema eta afaria bezain plan ona dira.

Bilbok eta futbolak ondo erakutsi digute edozein turismo mota ez dela jasagarria eta herrikoek ez duela zertan gure oporraldia sufritu. Mesedez, kanpora joateko bazara, saiatu inguruan ahalik eta gutxien eragiten. Tokikoa eta bidezkoa kontsumitu. Eta, batez ere, kontuz safari kulturaletan parte hartzearekin, ez mozorrotu

Urtero, sasoi honetan, 'pause'-ri emateko gogoz egoten naiz. Bizitza ikasturteka ikusten dugunon beste tara bat. Biziraupen botoia sakatuta banenbil bezala da

arrazakeria enpatiaz eta exotismoz.

Zure herriko txosnak ondasun immaterial izendatzeko prozesua abian da. Ticket ez, txosna bai? Gogoratu: guztiontzat, borondatezko lanetik, komunitatea indartu eta kultura

sustatzeko espazioa direla txosnak. Baina garrantzitsuena da zu *guztiok* horren parte izatea; barraren bi aldeetan, posible bada. Elkartasun ekintzak denon esku daude. Lagundu zaurgarria dena, babestu zapaldua izaten ari dena, eta konprometi zaitez denok pribilegio berak izan ditzagun, zure batzuk bidean galdu behar badituzu ere. Esate baterako, kontzertuetan: bi metro garai bazara eta zure atzean metro eta erdiko pertsona bat badago —ni, adibidez—, utziozu aurrean jartzen, mesedez. Ez dut ezer ikusten, eta zuk berdin-berdin ikusiko duzu dena. (Hori ez nuen serbiletan idatzi, baina debalde denez, tori opari bat! Hori ere elkartasuna litzateke, baina espero dut ulertu izana ez naizela horretaz soilik ari).

Laburtuta, zaintzeko zu eta ingurukoak, edo antzeko zerbaite. Ekain on! Ea denon artean paperezko ideiak lurreko ideia bilakatzen ditugun. ●

HITZ GUTXITAN

25 urte eta erdiko kartzela zigorra beste gizon bat hiltzeagatik

BILBO— Bizkaiko Auzitegiak 25 urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri dio gizon bati, frogatutzat jo baitu hark beste gizon bat hil zuela Bilbon, 2021ean. Lehendik ere hamar urteko zigorra ezarria zioten, beste gizon bat hiltzen saiatzeagatik, eta beste lau hilketak egozten dizkiote.

Jaurlaritzak hogeit milioi ipiniko ditu Ezkerraldeko enpresentzat

EZKERRALDEA— Indartu programaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak hogeit milioi euro ipiniko ditu «Ezkerralde zabaldia» deritzon eremuan jarduera ekonomiko bultzatzeko: hau da, Ezkerraldeko, Meatzaldeko eta Enkarterriko enpresek eskatu ahalko dituzte laguntzak.



Loiuk eta New Yorkek zuzeneko hegazkin konexioa dute jada

LOIU— Azken hilabeteetan, etenik gabe iragarri dira Loiuko aireportuak hartuko dituen ibilbide berriak, baina horietako bat izan da bereziki mugarrak: New Yorkeko (AEB) konexio zuzena. Domeka arratsaldean ateratzen zen Loiutik New Yorkera lehenbiziko hegaldia, 12:46an. AEBetako United Airlines konpainiak eskainiko du zerbitzua. Irudian, Bizkaiko agintariak eta konpainiaren ordezkariak Loiuko aireportuan, ospatzen. UNITED AIRLINES

ZENBAKIA

1.960

Eusko Jaurlaritzak Bilbon joan den azaroan ireki zuen Harreragune, migratzaileen harreran eta orientazioan espezializatutako zerbitzu publikoa. Ordutik igaro diren sei hilabeteetan, guneak 1.960 migratzaile artatu ditu.

Langabezia apaldu egin da Bizkaian: 1.260 langabe gutxiago daude

BIZKAIA— Maiatza hilabete ona izan da Bizkaian enpleguari dagokionez. Lanbideren arabera, langabeziak %2,1 egin du behera: apirilean baino 1.260 lagun gutxiago daude lanik gabe. Guztira 58.743 dira. Iazko datuekin alderatuta ere, positiboa da joera: 1.484 langabe gehiago zeuden orduan (%2,46).

Leire Rodero Ares

GETXO— Absentziak eta hutsu-neek hauspotuta jaio da Julen Nafarrate kazetariaren eta Ines Bermejo artistaren liburu berria: *Non daude Getxoko LGTBIQ+ nagusiak?* Getxoko LGTBI kolektiboaren memoria historikoaren inguruko daturik ez egoteak bide eman zion 2022an *Gu ere bagara* erakusketari, eta kale erakusketa hura testigantza liburu ilustratu bilakatu da orain. Gaur aurkeztuko dute Algortako Abian kultur elkartean (Getxo), 19:30ean.

Nola bihurtu da erakusketa bat liburu ilustratu?

INES BERMEJO: Erakusketa laburra izan zela sentitu genuen. Kallean egon zen, geltokietan, hitzaldiak ere eman genituen... Baina dena azkar pasatu zen. Nahiko efimeroa; zerbait iraunkorragoa nahi genuen.

JULEN NAFARRATE: Istorioak ez galtzeko eta nonbaiten iraunarazteko nahiak bultzatu du liburuaren sorrera. Ez genuen nahi istorio horiek gure ordenagailuan hiltzea. Hasieran, erakusketa egin eta halaxe amaitu nahi genuen; ez genuen espero proiektuak izan duen ibilbide guztia. Beraz, Getxoko sormen beka eskatu genuen berriz ere, eta liburuak prestatzeari ekin genion.

Erakusketaren ondoren istorio gehiago iritsi zitzaizkizuen?

NAFARRATE: Bai. Behin erakusketa eginda, testigantza gehiago iritsi zitzaizkigun, hasieran parte hartu ez zuten pertsonenak. Hildako pertsonen senideek ere beren oroitzapenak kontatu zizkiguten.

BERMEJO: Proiektuak herrian zerbait piztu izan balu bezala izan zen. Gaiaz gehiago hitz egiten hasi zen, beste herri batzuetatik deitu ziguten gure esperientzia konta genezan. Baina, noski, erakusketa egina zegoen, eta ez genekien zer egin material berri horrekin.

Nola egokitu zineten oraindik anonimotasunari eutsi nahi zioten LGTBI kolektiboko adinekoen errealitatera?

NAFARRATE: Erakusketa prestatzen hasi ginenean, gure ideia nagusiari uko egin behar izan genion. Pertsonak beren istorioak lehen pertsonan kontatzea nahi genuen, aurpegia eta izena emanda. Baina inork ez zuen identifikagarria izan zitekeen daturik kontatu nahi. Orduan ulertu genuen guk nahi genuena ez zela haiek behar zutena. Beraz, proiektua birformulatu egin genuen. Deialdia berrabiarazi genuen anonimotasuna bermatuz, irudi pertsonalik gabe. Eta, hala ere, kontatu zigutena oso baliotsua izan zen.



ARITZ LOIOLA / FOKU

«Istorioak ez galtzeko nahiak bultzatu du liburua»

**JULEN NAFARRATE
ETA INES BERMEJO**

Kazetaria eta artista

Julen Nafarratek eta Ines Bermejok Getxoko adineko 'queer'-en testigantzak jaso dituzte 'Non daude Getxoko LGTBIQ+ nagusiak?' liburuan.

Zer prentsatzan dute haiek gaur egungo egoera ikusten dutenean?

NAFARRATE: Haiek guri ere galderak egin zizkiguten, eta konturatu ginen gauzak ez direla hainbeste aldatu. Gaur egun, LGTBIQ+ komunitatearentzat oso askeak diren espazio asko daude, baina kolektiboarentzat erosoak ez diren esparru batzuk ere badaude, tamalez. Haiek ere sentitzen zuten espazio batzuk ez zirela asko aldatu. Adineko *queer*-ek gaur egun ez badute konfiantza nahikorik beren historiak plazaratzeko, horrek esan nahi du gizartea ez dagoela prest. Oso esanguratsua da. Batzuek beldurra dute oraindik.

Zein izan da proiektuko gauzarik zailena?

BERMEJO: Guretzat kontatu ezin diren istorioak kontatzea izan da zailena. Istorio asko bildu ditugu, baina ezin dugu detailerik kontatu. Datu pertsonalak, identifikagarriak diren pasarteak eta irudiak utzi behar izan genituen. Erakusketarekin egin genuen bezala, sormen prozesu handi baten bidez kontatu ditugu istorio horiek. Azkenean, artxiboko irudiak hartuta, anonimotasun horrekin jolasten joan gara. Biok egon gara prozesu horretan oso murgilduak. **Zer alde dago erakusketaren eta liburuaren artean?**

NAFARRATE: Liburuak hainbat gai sakonago lantzeko aukera ematen du. Erakusketan esaldi solteak eta elkarren artean lotura gutxi zuten elementuak zeuden. Hemen haurtzaroaz, nerabezaroaz, zahartzaroaz eta dolaaz ari gara, ildo narratibo bati jarraituz. Istorio asko ezin dira osorik eman, baina pasarte indartsuak daude. Adibidez, Getxotik beren sexualitatea libre bizitzeko joan direnenak, *sexilio* deritzen kasuetakoak. Batzuk itzuli egin ziren, beste batzuk ez, eta istorio batzuk betiko galdu ziren.

Konta dezakezue liburuan dagoen pasarteren bat?

NAFARRATE: LGTBIQ+ pertsonak oharkabean pasatzen dira, eta istorioak oso ondo islatzen du sentimendu hori. Bazen gizon bat Algortan, Bilbora zihoanean purpurinaz inguratuta bizi zena, erabat aske. Haren hileta egunean, Bilboko farandula osoa agertu zen Algortan, eta momentu horretan jabetu ziren urteetan onartu nahi ez zutenaz: homosexuala zela, alegia. Hori bezala, asko dira bizia diskrezioz bizi behar izan duten pertsonen istorioak.

Nolakoa izan da emaitza?

BERMEJO: Proiektu txikia da, maitasunez eta autoekoizpen gisa egina. Ez du dena kontatzen. Justu kontrakoa da: iradoki egiten du erabat erakutsi gabe. ●

Kinka

KLIMA ETA NATURA KRISIAN



Podcasta eta buletina,
hamabostero

HARPIDETU ZAITEZ
BULETINERA



Berria.eus/kinka

aldi hau
kontatzeko
berria



Psikologoek kalera atera dituzte suizidioa, sexualitatea, amatasuna eta beste

- Bizkaiko Psikologoen Elkarteak askotariko gaiak landu ditu 'Psikologia kalean' egitasmoaren laugarren aldian, Bilbon, Barakaldon, Abadiñon eta Zallan.
- Larrialdi simulakro bat egin dute Bilbon, psikologia ez baita «kontsulta klinikora mugatzen».



Erreskate simulakroa, lehengo ostiralean, Bilbon. MARISOL RAMIREZ / FOKU

Leire Rodero Ares

BILBO— Gazte bat Bilboko itsasadarrean erori da Arriaga antzokiaren parean, 16:00 aldera. Ertzaintza, DYA eta Gipek taldeak laster azaldu dira, eta uretatik erreskatatu dute. Jarraian, psikologoen txanda heldu da. Izan ere, Bizkaiko PEO Psikologoen Elkargo Ofizialeko psikologia zerbitzuak laguntza emozionala eskaintzen du hainbat egoeratan; adibidez, larrialdietan. Elkar-goaren larrialdietako psikologia zerbitzuen laguntza izan dute bai uretara eroritako gazteak eta bai ezbeharraren lekukoak. Kasu honetan, itsasadarreko gertakaria simulakro bat izan da, baina modua eman du psikologoen askotariko eginbeharrak erakusteko. Bizkaiko Psikologoen Elkargoko dekanok Begoña Ruedak gogoratu duenez, «psikologia ez da soilik kontsulta klinikotara mugatzen; egoera askotan behar izaten da

psikologo baten laguntza». Psikologiaren barruko aniztasuna ikusarazteko asmoarekin, *Psikologia kalean* jardunaldia egin zuten joan den astean, suizidioa, amatasuna, sexualitatea eta bestelako gaiak ardatz hartuta. Simulakroa ere egitasmo horren barruan egin zuten, ostiralean.

Psikologoen Elkargoak laugarren aldiz antolatu du *Psikologia kalean*, eta proposamen baten bitartez helarazi die herritarrei psikologoek gaur egun dituzten lanen eta kezken berri. Bilbo izan da jardunaldien erdigunea, eta Barakaldora, Abadiñora eta Zallara ere zabandu da ekaineko lehen astean. «Jarduera guztiek sarbide librea izan dute, eta hizkuntza hurbil eta inklusiboarekin diseinatu dira, ikuspegi akademikotik nahita aldentuta», esan du Ruedak.

Programak gai konplexuak baina oinarritzkoak jorratu dituela zehaztu du dekanok, hala nola

autolesioa, suizidioa, sexualitatea, amatasuna eta osasun mentalekin lotutako hainbat gai. Gainera, leku espezifikoak eskaini dio komunikabideek osasun mentalean arloan duten zereginari. Bilboko Luis Briñas Santutxu BHIko, Basauriko Uribarri BHIko eta Ugaoko Ugao eskolako ikasleek antsietatea eta autolesioak izan dituzte hizpide tailer batzuetan. Gazteei dago kienez, Ruedak azpimarratu du tailerrak hurbiletik diseinatzeko direla, nerabeek beldurrik gabe hitz egin dezaten. «Nahi duguna da nerabeek jakitea ez daudela bakarrik eta lehen pausoa laguntza eskatzea dela».

Elkargoko dekanoren aburuz, psikologiaren hainbat arlori buruz dagoen ezjakintasunari erantzuteko sortu zuten jardunaldia. Baita herritarrengana hurbiltzeko eta sektoreko profesionalak lantzen dituzten esparru guztiak ikusarazteko asmoarekin

ere. Haren hitzetan, «psikologiak askotariko aplikazioak ditu: larrialdietako esku hartzetik hasi eta psikologia hezitzaile, juridiko edo perinataleraino, besteak beste». Ruedak jakinarazi du informatzea eta herritarrekin elkartzeko guneak irekitzea dela helburu nagusia.

Ruedak kontatu du ekitaldiak bilakaera handia izan duela lau urtean: «Tailer espezifikoak sartu dira programazioan, eta hainbat familia jarduera gehitu». Horien artean, «haurtzaroko emozioen kudeaketan» oinarritutako tailerrak. «Urtero saiatzen gara programa dibertsifikatzen. Oraingoan, protagonismo handiagoa eman diegu gazteei, familiari eta hirugarren adinekoei».

Psikologia Sariak

Aurten bigarren aldiz banatu dituzte Psikologia Sariak. Profesional beteranoen ibilbidea aintzatesten dute sarien bitartez,

baita psikologiaren arloan nabarmentzen diren erakundeen lana ere. «Helburu nagusia da ibilbide profesional luzea dutenei ikusgaitasuna ematea», azaldu du dekanok. «Psikologia arloan urteak daramatzatenen lana aitortu nahi dugu». Adierazi du programak harrera ona izan duela aurten ere: «Interesa dagoen bitartean, aurrera jarraituko dugu». Aurten Caritas saritu dute —baztertuta daudenei laguntza psikologikoa eskaintzeko programatik—, baita Natalia Ojeda psikologoa eta AVATI elkarteak ere.

Bilboko erdigunean izan ondoren, *Psikologia kalean* ekitaldiak Basurto eta Begoñako udal zentroetan jarraitu du, eta neuropsikologia eta zahartzaroko gizarte harremanen garrantzia jorratu dituzte, besteak beste. Ruedak azpimarratu duenez, jardunaldiaren espiritua lehengo berbera da: «Kalera irtetea, entzuteko, azaltzeko eta laguntzeko». ●

Bizkaia, elizek kontatuta

Bilboko Eliz Museoak 'Bilboko Elizbarrutiko Monumentuen Katalogoa' gaurkotu eta digitalizatuko du 2029rako, foru aldundiaren laguntzaz. Daborduko bukatu dute Nerbioi Garaia dagokion atala.

Ibai Maruri Bilbao

Nor ez da isilik geratu Bilboko Santiago katedralera sartzean? Nork ez du hotzikara bat sentitu Lekeitioko basilikako erretaula iluntzeko eguzkiak argituta ikustean? Baina badira tenplu txikiak ere, oso ederrak, herri baten fedeak taupadak ematen dituen lekuak». Joseba Segura Bilboko gotzainaren esanetan, ikusgarri zein apal, aberatsa eta askotarikoa da kristautasunak Bizkaian sortu duen ondarea. «IV. gizaldian bere fedearen lehenengo lekukotasunak eman zituenetik gaur arte, kristau elkarteak Jainkoaren misterioa eta haren salbamenezko agerpena irudikatu gura izan ditu». Bilboko Eliz Museoak *Bilboko Elizbarrutiko Monumentuen Katalogoa* berritzeari eta digitalizatzeari ekin dio, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz. Guztira, herrialdeko 785 tenpluri buruzko informazioa jasoko du: mila erretaula eta 9.000 eskultura, margolan, urrezko eta zilarrezko bitxi, arropa eta bestelako elementu.

Eskualdeka antolatu dute, eta 2029rako bukatuta izango dutela uste dute. Daborduko osatu dute Nerbioi Garaia dagokion atala: maiatzaren 30ean aurkeztu zuten Zeberion, Olabarrietako San Tomas apostolua elizan. «Barkatuko diguzue aparteko leku ho-

netan egin izana ekitaldia, baina, konturatuko zinetenez, merezi du», adierazi zuen Juan Manuel Gonzalez Cembellin historialari eta Bilboko Eliz Museoko zuzendariak. Landa inguruko herri txiki bateko eliza bat izateko, liluragarria da Zeberioiko parroikia. 1592ko erretaula ikusgarri bat dauka, eta sakristian ehun bat eskultura ditu gordeta. Beste hainbat berezitasun ere baditu: Bizkaian, egileak sinatu duen elizpe bakarra da Zeberiokoa, herrialdeko kanpairik zaharrenetakoa du, eta, katalogorako egindako ikerketa lanari esker, XVI. mendeko gargola bat topatu dute, dragoi baten burua duena.

Gonzalez Cembellinen esanetan, ez dira hutsetik hasi katalogoa egiten. 1985ean ekin zioten lanari, Deustuko Unibertsitatean Artearen Historian katedradun den Jose Angel Barrio Lozaren zuzendaritzapean. Orduan egindakoaren eta oraingoaren arteko aldea nabarmena da. Lehengo eta behin, nabarmen ugaritu da tenpluen kopurua: ehun urte baino gutxiago zituzten elizak eta ermita gehienak kanpoan utzi zituzten 1980ko urteetan. Katalogatutako elementuen nolakotasuna ere zabaldu da. Adibidez, 1983ko uriolen ondorioz, meza jantzi eta kasulla asko hondatu ziren, eta garbitzera eroan zituzten. Beraz, lehen katalogoan ez dira ageri.

Gainera, oraingoan, agian balio artistiko apalagoa baina beste era batekoa izan dezaketen elementuak ere sartu dituzte. Esaterako, bigarren aldi honetan berebiziko



«Duela berrogei urte ez zen etnografia kontuan hartzen, eta gerta daiteke hamar urte barru hau guztia galduta egotea»

JUAN MANUEL GONZALEZ CEMPELLIN

Bilboko Eliz Museoko zuzendaria

«Iraganari begirunea erakutsi eta oraina aberasteaz batera, ondare iraunkorra utziko dugu hurrengo belaunaldientzat»

LEIXURI ARRIZABALAGA

Bizkaiko Kultura, Euskara eta Kirol diputatua

→ Zeberioiko San Tomas apostoluaren elizako kasulletako bat.
—MARISOL RAMIREZ / FOKU





← Bilboko Elizbarrutiko Monumentuen Katalogoa-ren aurkezpena, Zeberion, maiatzaren 30ean. —BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

↓ Zeberioiko San Tomas elizako karraka, Bizkaiko handiena. —MARISOL RAMIREZ / FOKU



garrantzia eman diote etnografiari: «Duela berrogei urte ez zen kontuan hartzen, eta gerta daiteke hamar urte barru hau guztia galduta egotea», azaldu du Gonzalez Cembellinek. Berbarako, Zeberioiko eliza horretan karraka berezi bat dute. Aste Santuan erabiltzen zen kanpaien orde, meztara deitzeko. Oro har, txikiak izaten ziren, baina zeberioarrek handi bat egin zuten, Bizkaian ezagutzen den handiena.

Atril bat ere erakutsi du Gonzalez Cembellinek Zeberioiko elizan. Aldarean meza liburuari eusteko erabiltzen da. 1910eko hamarkadako fabrikazio industrialeko pieza bat da. «Ez du aparteko balio artistikorik, baina Antoni Gaudik diseinatutakoa da, eta katalogoan sartzea merezi duela pentsatu dugu». Ondorioz, Nerbioi Garaiko tenpluetan zapihun elementutik gora katalogatu dituzte, eta Bizkai osoan

10.000 baino gehiago izango dira proiektua bukatzerako.

Seguraren esanetan, katalogo bat baino gehiago da egiten ari direna: «Iraganarekin izaten ari garen elkarriketa da. Harriei eskatzen ari gara konta diezagutela zer ikusi duten». Ikerketa egiten ari zirela, Zeberioiko elizako harriek sorpresa bat eman diete, esaterako, Gonzalez Cembellinek kontatu duenez: 1580an, tenplua zaharberritzen ari ziren harginek hainbat diseinu egin zituzten gangarako, haietako bat aukeratzeko, eta horman irudikatuta agertu dira.

Ezagutzera emateko

Aurreko katalogoa, batez ere, ondarea gordetzeko helburuz egin zuten; zer dagoen jakiteko eta ikertzaileek aztertze. Oraingo honetan, horrez gain, gizarteratu ere egin gura dute ondare hori, bizkaitarrek ezagut dezaten zer dagoen herrialdean. «Memoria

duen herri bat gara, bere iraganarekin apurtu behar ez duena. Fedea garrantzitsua izan da herri honentzat, eta, oraindik ere, ezinbestekoa da zer garen ulertzeko», esan du gotzainak.

Aldi berean, gura dute kanpo-koek ere ezagut ditzatela lurraldeko altxorak. Horregatik, tenplu bakoitzean liburuxka batzuk egongo dira eskura, eraikinaren eta han dagoen ondarearen berri emateko. Kultur etxeetan eta turismo bulegoetan ere banatuko dituztela esan du Eliz Museoko zuzendariak. Uste dute landa inguruan turismo jasagarria sustatzeko baliabide aproposa izan daitekeela. Eliza eta baselizetako atarietan, QR kode bat egongo da, gailu elektronikoetatik katalogo- ra sartu ahal izateko. Han topatuko dituzte tenplu bakoitzaren historia eta deskribapen zehatz bat, argazki mordoa eta eraikina barrutik ikusteko aukera.

Katalogoa «aurrekaririk gabeko» proiektua da, Leixuri Arrizabalaga Bizkaiko Kultura, Euskara eta Kirol diputatuaren esanetan, «erreferentziazkoa nazioarte mailan». Uste du transmisiorako tresna garrantzitsua izango dela: «Gure iraganari begirunea erakutsi eta gure oraina aberasteaz batera, katalogo honek ondare iraunkorra utziko du hurrengo belaunaldientzat». Arlo askotan eragingo duen legatua da, gainera. Izan ere, Arrizabalagak nabarmendu duenez, ondare erlijiosoaz gain, «ondare kulturala, artistikoa, linguistikoa eta identitarioa» ere batu dira. Hain zuzen, proiektuan hizkuntzari emandako garrantzia azpimarratu du; bereziki, bizkaierari. Bilboko Elizbarrutiko itzulpen zerbitzuko langileek eta Labayru fundazioek bizkaiera jasoan txukundu dute eduki guztia. ●

URAREN
JAIA
2025

ARRIGORRIAGA
LEHENDAKARI AGIRRE PARKEA
UDALETXE PLAZA
EKAINAK 7
10:30 - 19:00

EGITARAUA

Zaleek amestutako urteurrena

Aurten 25 urte bete dira Bilbo Basket sortu zenetik, eta lehen titulua lortuta ospatu dute: Europako Kopa. Azken urteetan nabarmen handitu da jarraitzaile kopurua, eta zaleen taldeek Bilbo Arenako animazioa hobetzeko egin dute lan.

Ibai Maruri Bilbao

BILBO— Joan den asteburuan bukatu zuten denboraldia Espainiako ACB ligan, eta Bilbo Basket taldeak hamaseigarren bukatu du, jaitsieratik gertu. Irudi lezake denboraldi txarra izan duela, baina, oro har, ez da larri sentitu, ez du-eta izan mailaz jaisteko beldurrik. Gainera, 2024-2025eko denboraldia jokalarien eta zaleen gogoan iltzatuta geratuko da, eta ez bakarrik kluba sortu zen 25. urteurrena ospatu dutelako; izan ere, Bilbo Basketek lehenengoz irabazi du txapelketa bat: FIBAren Europako Kopa, apirilaren 23an, Tesalonikan (Grezia), PAOKen aurka. Zaleek ez dute ahaztuko handik bi egunera

Bilboko kaleetan ospatutako jai jendetsua.

Hala ere, jarraitzaileek badituzte beste denboraldi kutun batzuk. Berbarako, Deabruak zaleen taldeko kide Asier Mugidak LEB ligan jokatu zuten 2018-2019ko sasoi nabarmendu du. «Oso gaitza zen lehen urtean bertan ACBra bueltatzea, baina lortu genuen. Denboraldiko bigarren partea zoragarria izan zen; oso polita». Mugidak gogoratu du zaleek sendo jarraitu zutela taldea babesten; hamabostero, 6.000 lagun biltzen ziren Bilbo Arenan. Urte gehiago ere aipatu ditu: 2010-2011ko denboraldian ACBko txapeldunorde izan ziren, eta 2011-2012koan Eurroligan jokatu zuten.

Bilbo Basketen historia «harri-garria» izan da, Mugidaren usteetan. «25 urte asko direla irudi lezake, baina kirol klub batentzat ez da horrenbeste, eta ikusi zenbat gauza lortu ditugun hain denbora gutxian». Ibilbide gorabeheratsua izan du klubak. Desagertzeko zorian ere egon zen, 2012an hasitako arazo ekonomikoen ondorioz. «Erakunde batzuek modu artifizialean puztu zuten kluba, munduko txapelketa BECera ekarri ahal izateko. Hori lortu zutenean, kluba bertan behera utzi nahi izan zuten», esan du Deabruak taldeko kideak. Zaleek manifestazioak egin zituzten, eta han egon ziren zaleen taldeak ere.

Gazteak eta familiak

Bilbo Basketen inguruan sortutako zaleen taldeen artean zaharrena Hirukoa da. Duela 21 urte ipini zuten martxan. Gaur egun dauden bospasei taldeen artean handiena ere bada: 105 bat kide ditu. Azken bi urteetan Jon Ander Asua izan da presidentea. Taldean



Bilbo Basketen zaleen Hirukoa taldeko kideak, Tesalonikan, apirilaren 23an. HIRUKOA

izena eman zuenean hartu zuen kargua. Asuak kontatu duenez, COVID-19aren pandemiaren ondorioz zaleen mugimendua motelduta zegoen. «Hainbat jende gazte batu ginen animazioa berpizteko».

Asuak esan du azken urteetan egindako lanari esker lortu dutela gazteak erakartzea; 20 eta 35 urte artekoak, bereziki. «Animazioari buelta bat eman diogu. Hainbeste urte zeramatzen beti abesti berak abesten, beti gauza berak egiten. Lehengoari ere eutsi diogu, baina animatzeko modu berriak sortu ditugu». Gura lukete Bilbo Basketeko zaleak ACB ligako «animatuenak» izatea. Asuak zaleen bi talde jo ditu eredutzat: Lugoko (Galizia) Breogan klubaren Embregados eta Lleidako (Herrialde Katalanak) Nucli Bordeus.

Athleticek San Mamesen nola, Bilbo Basketek ere animaziorako harmaila dauka Bilbo Arenan. Bilbo Basketeko jokalarien aulkiaren atzean dago. Asuak azaldu duenez, gehienbat Hirukoa taldeko kideak egoten dira han jokalaria animatzen. Deabruak taldeko Mugidak aitortu du haiek, oro har, ez direla harmaila horretara joaten: «Gure taldean eta bestetan jendeak gurago izaten du bere txokoan egon, betiko lagunekin eta familiarekin».



Deabruak taldeko kideak, Bilbo Basketeko Thijs de Ridder jokalaria omentzen, joan den astean, Bilbon. DEABRUAK

Hain zuzen ere, hori da Bilbo Basketeko zaleen beste ezaugarrietako bat: familia asko joaten dira kantxara, umeekin. Mugidaren esanetan, askorentzat domeka eguerdirako plana da saskibaloia ikustea, «plan lasaia baita». Horren ondorioz, taldeak kanpoan jokatzen duenean «gutxi» joaten dira jokalaria animatzera, baita astegunetan etxean jokatzen duenean ere.

25. urteurrena ospatuta, lehen garaikurra lortuta eta zor ekono-

mikoa kitatu berri, Bilbo Basket ondo dago hurrengo mende laurdena hasteko. Zaleen aldetik ere babes itzela dauka. Baina Asuak kezka agertu du, ez baitaki zer gertatuko den sostengu horrekin egunen batean egoera okertzen bada. «Aurten ere ikusi dugu pare bat partida segidan galdu dituztenean zale batzuk ez zirela Miribillara joaten, eta harmailetan zurrumurruak entzuten ziren. Jarraitzaileok beti babestu behar dugu taldea, onean eta txarrean». ●



«Animazioari buelta bat eman diogu: lehengoari eutsi diogu, baina animatzeko modu berriak sortu ditugu»

JON ANDER ASUA

Bilbo Basketeko Hirukoa zale taldeko kidea

«25 urte asko direla irudi lezake, baina ez da horrenbeste, eta ikusi zenbat gauza lortu ditugun»

ASIER MUGIDA

Bilbo Basketeko Deabruak zale taldeko kidea

bidera
itzulpenak

**OINK OINK...
GUAU??**

**PIO PIO...
MIAUU??**



Nahi duzun hizkuntza guztietan

Zuzenketak, itzulpenak eta zuzeneko interpretazio lanak



berria
taldea

www.bidera.eus • 943-303 555 / 607-787 304 • bidera@bidera.eus



← Bizkaiko Batzar Nagusietarako deia, Solluben, iazko Deiar Mendien Egunean.

—BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK

Batzar Nagusietara deituko dute etzi, Oiztik

- XX. Deiar Mendien Eguna antolatu dute Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Durangoko Alpino Tabira mendi taldeak.
- Garaitik abiatuko dira, 09:00etan. Lehenengoz, ibilbide zirkularra izango du mendi martxak.

Ibai Maruri Bilbao

Durangaldera itzuliko da Deiar Mendien Eguna: etzi egingo dute, Oizen. Durangoko Alpino Tabira mendi taldeak atondu du mendi martxaren ibilbidea, Bizkaiko Batzar Nagusiekin batera, eta,

lehenengoz, zirkularra izango da. Garain izango du abiapuntua eta helmuga. 09:00etan ekingo diote bideari, eta 12:00etan egingo dute ekitaldi nagusia, tontorrean, Batzar Nagusietarako deia eginez. Antolatzaileek jai txiki bat antolatu dute, handik gertu dagoen San

Kristobal baselizaren inguruan: hamaiketako eskainiko dute, eta musikarekin dantzan egiteko aukera egongo da.

Deiar Mendien Egunaren hogeigarren aldia izango da etzikoa. 2004an egin zuten lehenengoa, Bizkaiko Batzar Nagusien eki-

menez. Elezaharra eta historia nahasten dituen ospakizuna da. Urtero, txandaka, Bizkaiko bost deiar mendietako batera igotzen dira: Gorbeia, Ganekogorta, Koltza, Sollube eta Oiz. Aldiro, mendia dagoen eskualdeko mendi talde bat arduratzen da ibilbidea prestatzeaz: Lemoako Ganza-bal, Bilboko Gailurra, Balmaseda mendi taldea, Bermeoko Sollube 707 eta Durangoko Alpino Tabira, hurrenez hurren. Hain zuzen, domekan, ekitaldi nagusiaren ondoren, Alpino Tabirakoek Bilboko Gailurrakoei pasatuko diete lekukoa, datorren urterako Ganekogortarako mendi martxa presta dezaten.

Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Enkarterriko Museoak 2020an ikerketa bat egin zuten, jakiteko deiar mendien tradizioak zer duten historiatik eta zer usadio-tik. Jabier Barrio museoko zuzendaria eta Goio Bañales historialaria arduratu ziren dokumentuak arakatzeaz. «Egia da XIV. mendean bost adar jotzen zituztela Gernikan bertan, Batzar Nagusien hasiera iragartzeko», azaldu du Barriok. Hala jasotzen du adar hotsak aipatzen dituen lehen dokumentuak, 1321. urtekoak.

Jaun Zuria

Ordutik aurrera, zenbait idazlek hainbat mendetan jazotakoak nahastuta sortu da gaur egun omentzen duten tradizioa. Barrioren esanetan, Jaun Zuria Bizkaiko lehen jaunaren elezahar-rarekin nahastu zuten ondoren: «Hura izendatzeko adarrak jo zirela esan zuen Lope Garcia Salazarrek Padurako bataila kontatzen zuen *Libro de las Buenas Andanças e Fortunas* delakoan. Geroago aipatuko dira adar jottzaileak mendietan, eskualdeen arteko komunikazio bide modura». XVI. eta XVII. mendeetan izan zen hori, baina oraindik ez zituzten deiar mendien izenak aipatzen.

Hirurehun urte pasatu behar izan ziren lehenengoz izendatzeko: Antonio Trueba idazle erromantikoak zerrendatu zituen, XIX. mendean, baina ez zuen loturarik egin Batzar Nagusietarako deiarekin. «Truebak aipatu zituen, baina ez zuen baieztapenik egin; izan zitezkeela baino ez zuen esan, eta ipuin eran kontatu zuen», adierazi du Barriok. Trueba erreferentia zen garai hartako Bizkaian, kronikagile ofiziala zelako. «Hark esandakoa egia bihurtu dute ondorengoek».

Enkarterriko Museoaren zuzendariak nabarmendu duenez, historia egon badago deiar mendien oinarrian, eta adarrak Bizkaiko ikono dira, «lurraldearen defentsan zein mitologian». Horregatik, polita irizten dio tradizio hori urtero gogoratzeari. «Jai honekin gogoratzen ari gara zer izan den gure historia eta Batzar Nagusiek zer garrantzi izan duten. Egia da ez zirela mendietara igotzen, baina jai honek balio du ohitura baten bilakaera azaltzeko eta jarraipen bat emateko». ●

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Euskadi, auzolana
 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO

«Adar zahar batetik soinua lortzean, antzinako bizia esnatzen dela sentitzen dut»

ANDONI SAINZ
Deiadar egilea

Andoni Sainzek mendeetan komunikatzeko erabili diren haize tresnak berreskuratu ditu: bostehun deiadar inguru ditu Alonsotegin, erakusketa batean.

Leire Roderó Ares

Sakelakoen garai honetan, zaila da imajinatzea noizbait adarrek egin zutela mezulari lana. Andoni Sainzek (Karrantza, 1988) Alonsotegiko bere tailerrean tamaina guztietako deiadarrak sortzen ditu. Garai batean batzarrerako deia egiteko edo zorigaitzen berri emateko balio izan zuten adarrek; orain, artisautza lanak dira. Gaur egun Sainzek bostehun eredu inguru ditu Alonsotegin atondu duen erakusketan.

Nola hasi zinen adarrak egiten?
Oso modu intuitiboan hasi nintzen. Pandemia garaian bizilagun batek adar bat ekarri zidan, eta erronka jo, ea soinua ateratzeko gai nintzen. Adarrari zulo bat egin nion, eta gutxinaka-gutxinaka probak egin nituen. Interneten informazioa bilatu nuen, bideoak ikusi nituen, gehiago esperimintatu nuen eta asko gustatu zitzaidan artisau eran egindako adarren mundua. Azkenean, soinua lortzen dudana aldiro, antzinako bizia esnatzen dela sentitzen dut. Horrek harrapatu ninduen, eskuz

egindako lana delako, baina baita prozesu emozionala delako ere. **Zer istorio dago instrumentu horren atzean?**

Duela milaka urte herrietan deiadarrak erabiltzen zituzten komunikatzeko. Adarraren dei bakoitzak berezko esanahia zuen. Kode propioa erabiltzen zuten; festa iragar zezaketen, arrisku baten berri eman edo batzar batera deitu, besteak beste. Mendian ere erabiltzen zituzten; batez ere abeltzainek, arriskuan zeudenean laguntza eskatzeko eta janaria garraiatzeko poltsa gisa. Bizimodu bat zen. Ez bakarrik Euskal Herrian, baita munduko beste herrialde batzuetan ere. Eskozian, adibidez, deiadarrak dituzte, eta bikingoen garaian oso ohikoak ziren.

Zenbat denbora behar da deiadar bat sortzeko?

Tamainaren eta adar motaren arabera, baina normalean bi egun inguru behar ditut. Adarra handia edo bereziki konplexua bada, litekeena da lana luzatzea eta bost egun behar izatea. Adarra aukeratzear hasten da sortze prozesua. Lehenik eta behin, adarra egosi behar da, hiru ordu laurden inguru, eta, ondoren, barruan darman hezurra ateratu. Erabiliko den kanpoko azalari zulo bat egiten diot, eta gero desinfektatu egin behar da; nik hiru aldiz garbitzen dut. Azkenik, dekoratu egiten da, eta horretarako grabatu pertsonalizatuak sortzen ditut.

Zerk bultzatu zaitu tradizio hau jarraitzera?

Historiak bultzatu nau, instrumentu honek 32.000 urte baino gehiago dituela jakiteak. Adarrak flauta tradizional asko baino lehenagokoak dira, eta horrek ilusio handia sortzen dit. Ez da artisautza lana bakarrik; memoria, kultura eta emozioa ere badira. Edozein ekitalditara gonbidatzen nauten guztietan, pozez joaten naiz. Beti bi lagun joaten gara: Janire emaztea eta biok. Guretzat oso garrantzitsua da musika tresna honi ikusgarritasuna ematea, galdu ez bada ere, gutxi ikusten delako. Bion artean saiatzen gara gero eta toki gehiagotan ikusarazten.

Zer-nola erantzuten du jendeak lehen aldiz deiadarraren soinua entzutean?

Askotariko erantzunak daude, baina, batez ere, harritu egiten dira. Asko gustatzen zait besteen erreakzioa ikustea, ez adarrak nik egin ditudalako, baizik eta nire helburua betetzen dela sentitzen dudalako, zerbait transmititzea lortu dudalako. Berezi gustatzen zait haurrak hunkitzen direnean. Oso anekdota berezia dut horrekin.

Kontatu, beraz.

Karrantzan ume batek nik egiten ditudan adar batzuk ikusi zituen telebistan. Hurrengo egunean sukaldeko inbutu bat hartu zuen etxean eta deiadarra balitz bezala erabiltzen hasi zen. Orain adar bat dauka eta eskolara eramaten du. Lagun guztiei erakutsi die harrotasunez. Horrelako bizipenak ederak dira, ikusten baituzu egindako lana ez dela tailerrean geratu. ●



MONIKA DEL VALLE / FOKU

XX. edizioa

deiadar mendien eguna

2025

Ekainak 8 Domeka

09:00 GARAI (Udaletxean)

12:00 Batzar Nagusirako deia tontorretik

Antolatzailea |

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Laguntzaileak |



«Deiadar bat egitea ez da artisautza lana bakarrik; memoria, kultura eta emozioa ere bada»

MUSIKA

Barakaldo Rigoberta Bandini. Gaur, 19:00etan, BECen.

Barakaldo Myke Towers. Bihar, 21:00etan, BECen.

Basauri Ingude eta Niere. Gaur, 21:30ean, gaztetxean.

Bilbo *Heroikoa eta Zimmermann*. Bilboko Orkestra Sinfonikoa eta Frank Peter Zimmermann. Gaur, 21:00etan, Euskalduna jauregian.

Bilbo *Batetik bestera* haurrentzako kontzertua. Benetan Be konpainiaren emanaldia. Gaur, 18:00etan, Artazu Goikoan.

Bilbo Mad Muasel Backed by Big Sound Boy. Gaur, 19:00etan, La Vaguadan.

Bilbo Adela Green. Gaur, 19:30ean, Jazzon aretoan.

Bilbo Pablo Lopez. Gaur, 21:00etan, Bilbo Arenan.

Bilbo Black Pistol Fire. Gaur, 21:00etan, Azkenan.

Bilbo Im-Pulse. Gaur, 21:30ean, Kafe Antzokian.

Bilbo Arene 6 eta Sukena. Gaur, 22:00etan, Otxarkoagako Ugarte plazan.

Bilbo Zitzada & Rlantz eta Quitapenas Colectiva. Gaur, 22:00etan, Atxuriko plazan.

Bilbo My Bastard Friend. Bihar, 19:00etan, Buiabarriko kirolgunean.

Bilbo Jorge Rossy & Mike Kanan. Bihar, 20:00etan, Jazzon aretoan.

Bilbo Orlis Pineda. Bihar, 20:00etan, Enkarnazio plazan, Atxurin.

Bilbo RIX. Bihar, 20:00etan, Santana 27n.

Bilbo Airbag, Capsula, Greta, Kiliki, Lamia Mari, Pi.L.T, Ul-tralagrima, Hens, Svsto, Los Bengala, Javiera Mena. Bihar, 20:00etan, Abusun.

Bilbo Bulego. Bihar, 21:30ean, Santana 27n.

Bilbo Los Garrapateros, Repartiendo La Pana eta Sin Noticias de Holanda. Bihar, 21:30ean, Kafe Antzokian.

Bilbo Indrid eta Versoix. Bihar, 21:30ean, Azkenan.

Bilbo Sua. Bihar, 22:00etan, Ugarte plazan.

Bilbo Aiora eta Piti, Adur eta Euskal Rockmeria. Bihar, 22:00etan, Atxuriko plazan.

Bilbo The Big Break eta Pleasure James 3. Igandean, 12:30ean, Nave 9n.

Bilbo Flamenco y Son. As-teartean, 19:00etan, Casilda Iturrizar parkean.



JOSE LUIS BLANCO LOPEZ

‘Organorik gabeko gorputz baten orroak’ Bilbon

BILBO– Bizkaiko andrazko sortzaile esperimentalei tokia egin die Bilboko Fundicion aretoak *Zer(K)nias* antzerki zikloan. Amaiur Macias aktore bilbotarraren lan batekin abiatuko da zikloa: *Organorik gabeko gorputz baten orroak*. Performer baten rola jokatzen du Macias, baina, ohi ez bezala, hura da bezeroei begiratzen diena. Bezeroen desirak betetzen dira txat horretan, baina, bat-batean, egoera irauli, eta performerraren desira nagusituko da. Ikusleen begiradaren bidez garatuko da lana. Gaur izango da, 19:00etan.

Bilbo Mikel Artieda eta Leire Berasaluze. Ostegunean, 19:00etan, Agirre Lehendakariaren etorbideko 184.ean.

Bilbo The Halfnelsons. Ostegunean, 19:00etan, Zurbarango Panera plazan.

Bilbo Somak, Barre Ikara eta Karam. Ostegunean, 19:30ean, Otxarkoagako Mahatserri tabernan.

Bilbo Astor Piazzola boskotea. Ostegunean, 19:30ean, Arriaga antzokian.

Bilbo Mariano Diaz & Javier Malosetti Trio. Ostegunean, 20:00etan, Jazzon aretoan.

Bilbo Power Up Orchestra. Ostegunean, 20:30ean, Azkenan.

Erandio Oinutsik erromeria. Bihar, gauerdian, Fano auzoan.

Erandio Estankona. Bihar, 18:30ean, Motagane txakolindegian.

Erandio Arima Cool Tour. Igandean, 13:30ean, Fanon.

Ermua Fan & Go eta Opilak. Bihar, 20:00etan, plazan.

Gernika-Lumo Gatibu. Bihar, 18:00etan, San Kristobalگو aparkalekuan.

Getxo Ekhi Lambert. Igandean, 13:30ean, Muxikebarrin.

Gordexola Los Retumbes, Head Holes, Chicos de Barrio, John Dealer & The Conuts, Alerta eta Dirty DJa. Bihar, 18:00etan, Laugaren.

Iurreta Kobertzaleak. Gaur, 18:00etan, Goiuria auzoan.

Larrabetzu Kaleko Urdangak, Prisonnier du Temps eta Legez Kampo. Bihar, 21:30ean, gaztetxean.

Leioa Wilson & Wilsonetes. Gaur, 23:00etan, Txorierrin.

Leioa Oxabi. Bihar, 22:30ean, Txorierrin.

Portugalete Akainak, Soka eta Taikardia. Bihar, 20:00etan, gaztetxean.

Santurtzi Krudoo, Txerri Ugerak, Celtibeerian, Lebenback, Empiric eta Heleven. Gaur, 18:30ean, La Nautica aretoan.

Zamudio Vulkano orkestra. Gaur, 23:30ean, Sabino Arana plazan.

Zamudio Kaotiko eta Perlata. Bihar, 23:30ean, Sabino Arana plazan.

ANTZERKIA

Basauri *Eraitsi S.L.*. Goitibera konpainia. Bihar, 12:30ean, Kareagan.

Basauri *No tengo remedio*. David Navarro. Bihar, 20:00etan, Social antzokian.

Bilbo *Organorik gabeko gorputz baten orroak*. Amaiur Macias. Gaur, 19:00etan, Fundicion aretoan.

Bilbo *La enferma*. Aztiak konpainia. Antzerki amateurren

jaialdia. Gaur, 19:30ean, Pabiloi 6n.

Bilbo *No cruces los brazos*. David Cepo. Gaur eta bihar, 19:30ean, Campos antzokian.

Bilbo *HERZ; patataren saketik*. Madame Señorita. Bihar, 19:00etan, Fundicion aretoan.

Bilbo *Abrázame* eta *Emakume Arima*. Zenbatu antzerki taldea eta Auzo arima antzerki taldea. Antzerki amateurren jaialdia. Bihar, 19:30ean, Pabiloi 6n.

Bilbo *Metamorfosis 2.0* eta *Repoblar el alma en tiempos de mascarilla*. Yeinner Chicas eta Maravilla konpainia. Bihar, 20:00etan, BBK Salan.

Bilbo *La isla de las gaviotas*. Izarte konpainia. Antzerki amateurren jaialdia. Igandean, 19:00etan, Pabiloi 6n.

Bilbo *Show patético*. Abian Diaz. Igandean, 19:30ean, Campos antzokian.

Bilbo *Cleptomago*. Shado magoa. Igandean, 20:00etan, Campos antzokian.

Bilbo *Alphabet*. Alberto Cortes. Ostegunean, 19:00etan, Azkuna zentroan.

Bilbo *Hable con Montse*. Iuris Tantum taldea. Antzerki amateurren jaialdia. Ostegunean, 19:30ean, Pabiloi 6n.

Elorrio Alperrak, tunanteak eta maleanteak eta Hurrengo geltokia. Gilkitxaro eta Karrika taldeak. Gaur, 20:00etan, Arriola antzokian.

Erandio Amama: irrifarrearen ondarea. Eidabe konpainia. Bihar, 20:00etan, kultur etxean.

Getxo Zorretan. Hika konpainia. Gaur, 20:00etan, Muxikebarrin.

Getxo Señora Einstein. Defondo Teatroa. Bihar, 20:00etan, Muxikebarrin.

Getxo Ostirala iritsi da. Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore. Igandean, 16:30ean, Muxikebarrin.

Iurreta El salto de Léucade. Skene Teatroa. Gaur, 19:00etan, kultur etxean.

Sopela El zoo de las plumas. Igandean, 19:00etan, kultur etxean.

Zornotza De desastre a Verona eta Asesinato en el restaurante Anboto. Markeliñeren antzerki tailerreko ikasleak. Gaur, 20:00etan, Zornotza aretoan.

BERTSOLARITZA

Bilbo Ez da kasualitatea bertso saio musikatua. Aner Peritz, Irune Basagoiti, Onintza Enbeita, Libe Goenaga, Nerea Ibarzabal eta Aissa Intxausti. Asteazkenean, 19:00etan, Kafe Antzokian.

Ondarroa Bertso saioa. Irune Basagoiti eta Xabat Galletebeitia. Astelehenean, 11:00etan, Artibaiko egoitzan.

Sondika Bertso saioa. Aissa Intxausti eta Jone Uria Albizuri. Igandean, 14:30ean, El Casino jatetxean.

Zornotza Bertso saioa. Jone Larrinaga eta Etxahun Lekue. Asteazkenean,



GORKA RUBIO / FOKU

Kantuak eta algarak Getxon, 'Ostirala iritsi da' saioan

GETXO– Astea irribarretsu bukatzeko gogoa dute Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore pailazoek, eta Getxon kantuz eta umorez jositako ikuskizun bat prestatu dute horretarako: *Ostirala iritsi da*. Eskolako azken eguna ospatzen ari dira pailazoak, Txapas irakaslearekin batera: akordeoia jo du batek, mozorrotu egin da bestea, eta ikusleak xaxatzen saiatzen ari da beste bat. Giro ederrean ibiliko dira etzi, Muxikebarri aretoan, 16:30ean. Irudian, emanaldi bat, Usurbilen (Gipuzkoa), abenduan.

17:00etan, Jose Mari Azkuna egoitzan.

ERAKUSKETAK

Barakaldo Arte saturatua. Alaitz Labeaga. Ekainaren 30era arte, Gazte bulegoan.

DANTZA

Barakaldo Être eta Cuir-dar-me. Miguel Jimenez konpainia eta Kike Arias. Gaur, 18:30ean, Barakaldo antzokian.

Bilbo Vertebrado. Juan Tomas Molia, Jesus Corbacho,

Manuel de la Nina eta Juan Campallo. Gaur, 20:00etan, BBK Salan.

Bilbo Pre-Giudizio, Unspoken Queens eta An Act. Oggi dantza taldea, Zan Kora eta Neil Hohener. Gaur, 21:00etan, Campos antzokian.

Bilbo Choose to Stray than Stay eta Re-garde. GOMisun eta MF konpainia. Bihar, 12:00etan, Guggenheim museoan.

Bilbo Garena. Olaeta ballet elkarte, Oldarra Ballet, Salleko Dantza Taldea, Igor Yebra dantza eta koreografia eskola, eta Zirzira ahots taldea. Igandean, 19:00etan, Arriaga antzokian.

Bilbo La montaña del diablo. Carla Roisin eta Baseline. Igandean, 19:00etan, Fundicion aretoan.

Ermua Taupa Dance. Gaur, 19:30ean, Ermua antzokian.

Ermua Kukai dantza taldea. Bihar, 18:00etan, plazan.

HAUR JARDUERA

Lemoa Sagu txiki, sagu maite. Ipuin kontaketa saioa. Bego Alabazan. Asteazkenean, 18:30ean, kultur etxean.

Portugalete Sestremeneko kobazuloak. Ipuin kontaketa. Mikel Susperregi. Gaur, 18:00etan, liburutegian.

 **EUSKAL HERRIKO KULTUR EKITALDIEN AGENDA**
berria.eus/agenda.html



KANTOK

Egunero kantu bat asmatzeko 'Badok'-en jolasa
Klasikoak, berriak...



32.000 kantu, euskal musikaz gozatzeko!

[Badok.eus/kantok/](https://badok.eus/kantok/)



KANTOK
jolasa

BADOK

aldi hau
kontatzeko
berria

Iraia Vieira Gil

Urte asko daramatza Maite Garciak (Otxandio, 1971) euskarazko antzerki ez-profesionala egiten. Elorrioko Arrapaladan antzerki taldean hasi zen antzeztzen, eta bertan jarraitzen du oraindik, Maritxi Ibazetarekin, Karmele Ganboarekin, Blanqui Gomezekin eta Carmen Urizarrekin batera. Euskarazko antzerki amateurra sustatzeko helburuarekin, jardunaldi berezi bat antolatu dute gaurko, Elorrioko Arriola antzokian: Karrika eta Gilkitxaro konpainiek antzezlan bana interpretatuko dute, eta, ondoren, euren esperientziak plazaratzeko hizketaldi bat egingo dute elkarrekin. Sonia Villamor Arrapaladan taldeko zuzendaria izango da solasaldiaren moderatzailea. Gainera, Elorrioko Emakumeen Eskolaren festaren harira, antzerki labur bat emango du Arrapaladan-ek. Hilaren 19an izango da emanaldi hori.

Nola otu zitzaizuen halako ekitaldi bat egitea?

Elorrioren Zale festibala egitea izan zen hasierako ideia. Jaialdi horretan, antzerki talde ez-profesionalak elkartu nahi genituen, baina, azkenean, talde bakar batek eman zuen parte hartzeko izena: Durangoko Karrika taldeak. Prestatutako antzezlanak aurkezteko aukera eman nahi genien kideei, eta ekitaldi bat antolatzea erabaki genuen. Azkenean, beste talde bat ekartzea lortu genuen, jardunaldia jantziagoa izan zedin.

Zer antzezlan aurkeztuko du talde bakoitzak?

Karrika antzerki taldeak *Hurrengo geltokia* izeneko obra interpretatuko du. AHTaren inguruko antzezlan bat da. Euskal mitologiari abiatuta, AHTak eragindako gatazkaren inguruko kritika plazaratuko du. Gilkitxaro konpainiak *Alperrak, tunanteak eta maleanteak* lana antzeztuko du. Erbestean bizi diren hiru inurrien istorioa da: Pili, Mili eta Willy. Bortxazko lana existitzen ez den toki batean bizi nahi dute: gizakien paradisuari. Baina gizakien mundura heltzen direnean, horren inguruan duten iritzia aldatuko dute berehala.

Solasaldi bat ere prestatu duzue. Zertaz arituko zarete?

Gonbidatutako taldeen sorkuntza prozesuez arituko gara, gehienbat. Jendea animatuta badago, euskarazko antzerki amateurren ere hitz egingo dugu.

«Amateur» hitza erabiliz gero, jende gutxiago etorriko da zu ikustera»

MAITE GARCIA Elorrioko Arrapaladan antzerki taldeko kidea

Arrapaladan antzerki taldeak jardunaldi bat antolatu du antzerki amateurren inguruan aritzeko. Gaur egingo dute, Elorrioren. Garciak dio harremanak estutu nahi dituztela.



ARITZ LOIOLA / FOKU



SOLASEAN

Zaila da antzerki talde amateurren jaialdietara erakartzea?

Arrapaladan taldean, antzerki ez-profesionala egiten dugu. Euskarazko obrak landu ditugu hasieratik, eta guretzat zaila da Elorriotik kanpo antzeztea. Ez dakigu nora jo, eta ez dakigu gure obrak non aurkeztu. Pentsatu genuen Zale bezalako festibal batek bidea irekiko ziela antzerki amateurrean aritzen diren konpainiei, eta elkarren arteko harremanak

sustatuko zituela. Ez dakit zorrotzeak izan garen oinarriari dago-kienez, baina ez dugu gure helburua lortu. Ez da inor aurkeztu, eta ez dakigu zergatik. Ideiari buelta bat eman nahi diogu, proposamen polita dela uste dugu eta.

Zer dago hobetzeko?

Halako zerbait antolatu dugun lehenengo aldia da. Oso pozik eta animatuta geunden, pentsatzen genuelako izugarritzko arrakasta izango genuela. Errealitateari erreparatuta, badakigu gauza batzuk aldatu behar izango ditugula. Askotan gertatzen da antzerki tailer batean sortutako talde batek aukera bakarra duela bere obra antzezteko. Tailerra amaitu ostean, taldea desagertu egiten



«Antzerki talde ez-profesionalak elkartu nahi genituen, baina, azkenean, bakarrak eman zuen izena»

«Obra propioak sortzen ditugu, baina egiten dugun antzerki motak ez du antzerki tradizionalaren antzik»

da. Pentsatu dugu tailerrak antolatzen dituzten konpainiekin hitz egin dezakegula, behin-behineko talde horiei antzezteko aukera bat baino gehiago eskaintzeko.

Tailer batetik sortu zen Arrapaladan taldea?

Bai. Arriola antzokiak antzerki tailer bat antolatu zuen aspaldi, eta, amaitu zenean, antzeztzen jarraitzea erabaki genuen hainbat kidek, baina ez genuen inolako talderik osatzea lortu. Hamabost urte inguru igaro ostean sortu genuen Arrapaladan. Hasieran zortzi lagun ginen, baina orain, bospasei; guztiak, emakumeak. Antzezle lanak egiten ditugu gehienok, eta besteek musikaren sorkuntzarekin eta arloekin laguntzen gaituzte.

Kide guztiak emakumeak izateak eragina du zuen lanetan?

Bai. Emakume izatearen esperientziak batzen gaitu. Emakumeen ikuspuntutik lantzen ditugu obra guztiak, eta emakumea protagonista da beti. Gure obra propioak sortzen ditugu, baina egiten dugun antzerki motak ez du antzerki tradizionalaren antzik. Ez da hasiera, korapilo eta amaiera egitura horretan oinarritzen.

Zelakoa da sorkuntza prozesua?

Idea ekaitza egiten dugu: interesgarriak iruditzen zaizkigun ideiak aurkezteko askatasuna dugu. Horiek kontuan hartuta, inprobisazio saioak eta testuak sortzen ditugu. Ondoren, zuzendariak forma ematen dio guztiari. Astean behin elkartzen gara entseatzeko, arratsaldean, bi ordu eta erdiz.

Antzerki amateurren pizten al du publikoaren arreta?

Amateur hitza erabiliz gero, jende gutxiago etorriko da zu ikustera. Oro har, nik antzeman dudana da gaztelerazko antzerkiak arrakasta handiagoa duela. Maila profesionalan ere bai. Aktore famatuak dituzten taldeek ere sarrera gehiago saltzen dituzte. Elorrioren antzeztan dugunean, guk publikoaren arreta erraz pizten dugu, jendeak ezagutzen gaituelako. Durangora bagoaz, berriz, publiko gutxiago izango dugu; eta are jende gutxiago etorriko da amateurren garelako badiogu.

Zein da euskarazko antzerkia sustatzeko bidea?

Zaila da. Hori da guk geuk egin behar dugun hausnarketa. Ez gara profesionalak, baina asko disfrutatzen dugu oholtza gainean. Euskaraz egiten dugu, ikusten dugulako horretarako aukera gutxiago daudela. ●